# Barakaldoko Memoriaren Ibilbidea
## Itinerario de la Memoria de Barakaldo

# 8 Panela. Ugarteko aerodromoa
## Panel 8. Aeródromo de Ugarte

**AURKEZPENA**

**Barakaldoko Memoria Historikoaren Ibilbideak 10 panel ditu, gure udalerrian Gerra Zibilarekin eta diktadura frankistarekin lotutako gertaera esanguratsuak gertatu ziren leku adierazgarrietan sakabanatuta. Ibilbidea egitera gonbidatzen zaituztegu, memoria historikoa berreskuratzeko pizgarri izan daitekeelakoan. Horren bidez, egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubideak bermatzea bilatzen da.**

**PRESENTACIÓN**

El Itinerario de la Memoria Histórica de Barakaldo incluye 10 paneles repartidos por los lugares emblemáticos identificados de nuestro municipio en los que acontecieron hechos significativos en relación con la Guerra Civil y la dictadura franquista. Invitamos a realizar el recorrido como incentivador de la recuperación de la memoria histórica. Se pretende contribuir a garantizar los derechos a la verdad, la justicia y la reparación.



Megapark eta Max Center merkataritza-guneen artean, gaur egun A8 autobiak hartzen dituen lurretan, Euzkadiko Gobernuak aerodromo bat eraikitzea agindu zuen. Hala ere, instalazioa ez zen erabili, 1937ko ekainaren 6an amaitu baitzen, armada matxinatuak Barakaldo hartu baino soilik hamasei egun lehenago.

*En los terrenos actualmente ocupados por la autovía A8 entre los centros comerciales Megapark y Max Center, el Gobierno de Euzkadi encargó la construcción de un aeródromo. Sin embargo, la instalación no se llegó a utilizar, dado que se concluyó el 6 de junio de 1937, tan sólo dieciséis días antes de que el ejército sublevado tomase Barakaldo.*



Euzkadiko Gobernuko Obra Zuzendaritzak Ugarteko aerodromoaren eraikuntzari buruz egindako txostenaren faksimilea, Defentsa Saileko idazkari nagusiari zuzendua.

*Facsímil del informe de la Dirección de Obras del Gobierno de Euzkadi sobre la construcción del aeródromo de Ugarte, dirigido al Sr. Secretario General del Departamento de Defensa*



Ugarteko aerodromoaren proiektua 1937ko maiatzean hasi zen eta, hilabete eskas geroago, lur-berdinketa, zanpaketa- eta fintze-lanak amaituta zeuden, hau da, lurreratzeko eta aireratzeko baldintzetan. Pistak 850 metroko luzera eta 200 metroko zabalera zuen. Hura eraikitzen, 350 langile aritu ziren 10 orduko lanaldietan; gehienak Bizkaiko Labe Garaietako langileak ziren, nahitaezko langabeziaren diru-laguntza hartzaileak. Lursailak betetzeko, lurrez betetako kamioiek 4.000 bidaia egin behar izan zituzten.

*El proyecto del aeródromo de Ugarte se inició en mayo de 1937 y, apenas un mes después, estaban concluidos los trabajos de explanado, apisonado y refinado, es decir, en condiciones de aterrizaje y despegue. La pista tenía una longitud de 850 m y una anchura de 200. Trabajaron en su construcción 350 obreros en jornadas de 10 horas; la mayor parte de ellos trabajadores de Altos Hornos de Vizcaya, receptores del subsidio de paro forzoso. Para el relleno de los terrenos, fueron precisos 4000 viajes de camiones cargados de tierra.*





Ugarteko aerodromoaren kokapena; goian, 70eko hamarkadako argazki batean eta behean, berriz, gaur egun lurraldearen antzeko ikuspegi batean. Hegazkin ilustratuak sobietarrek armada leialari emandako Polikarpov I-15 hegazkinak dira.

*Ubicación del aeródromo de Ugarte, arriba sobre una fotografía de los años 70 y abajo sobre una vista similar del territorio en la actualidad. Los aviones ilustrados son los Polikarpov I-15 suministrados al ejército leal por el soviético.*





Hegazkina Lamiakoko aerodromotik aireratzen. *Avión despegando del aeródromo de Lamiako*

Armada Errepublikanoko Aireko Indarrak gutxiagotasun egoera nabarmenean zeuden armada matxinatuarekiko, eta hori oso erabakitzailea izan zen Gerra Zibilaren amaieran. Ugarteko aerodromoa eraikitzeko lanak, hain zuzen ere, egoera iraultzeko ahalegin desesperatu batean hasi ziren.

*Las Fuerzas Aéreas del ejército Republicano se encontraban en una situación de notable inferioridad con respecto al ejército sublevado, circunstancia que resultó muy decisiva en el desenlace de la Guerra Civil. Las obras de construcción del aeródromo de Ugarte se iniciaron precisamente en un intento desesperado por revertir la situación.*



Hegazkin errepublikarren eskuadrila bateko pilotuen irudia, atseden-une batean.
*Imagen de pilotos de una escuadrilla de aviones republicanos en un momento de asueto.*

visitbarakaldo / memoria histórica

visitbarakaldo / memoria-historikoa

Jarraitu ibilbideari *Sigue el itinerario*

Barakaldo CIUDAD·HIRIA

Memoria ibilbideak Itinerarios de la Memoria

talaia.com